**2024KO MARTXOAREN 26ko EZOHIKO OSOKO BILKURA**

***SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA DE 26 DE MARZO DE 2024***

Baztango Udaletxeko bilkura aretoan, 2024ko martxoaren 26an, 19:00etan, Baztango Udala Osoko Bilkuran bildu da, ezohiko bileran, Fernando Anbustegi Goñi alkate-udalburu jauna buru dela, eta zinegotzi hauek etorri dira: Lorea Lizarreta Insausti, Mariano Iribarren Irigoyen, Jose Luis Retegi Iturbide eta Gorka Urtasun Saldias EH-BILDU taldekoak; Florentino Goñi Tellechea, Iñigo Iturralde Eliceche eta Joseba Moreno Videgain ZUREKIN-CONTIGO BAZTAN taldekoak; Pello Sarratea Sanzberro eta Andoni Irigoyen Maritorena BAZTANGO INDEPENDIENTEAK / INDEPENDIENTES DE BAZTAN taldekoak; Anastasio Nagore Garralda UPN taldekoa; Lander Mattin Santamaria Alcocer GEROA BAI taldekoa.

Ez da bertaratu: Alaitz Arretxea Etxeberria

Idazkari lanetan Iulen Urbiola Loyarte jauna aritu da.

Alkateak hasiera eman dio bilkurari.

**1.- 2024/02/22KO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA.**
2024/02/22ko ohiko osoko bilkuraren **akta aho batez berretsi da**.

**2.- 2024 URTERAKO OHIKO AURREKONTU-PROIEKTUA AZTERTU ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTU.**
Udalbatza honen aurrekontu arrunta eta dagozkion gauzatze-oinarriak aztertu dira, bai eta haren mendeko erakundeak ere, Baztango Udal Ikastola eta Francisco Joaquin Iriarte Zahar-etxea. Halaber, Giltxaurdi SM, Lixura Baztan SM eta Zaintza Lanak Baztan SM enpresa publikoen 2024ko ekitaldirako gastuen eta diru-sarreren aurreikuspenak aztertu dira.
Aurrekariak azaldurik, arrazoiak eta ondorioak aurkezturik, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia eman ondotik, bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildua, eta honela laburbiltzen dena:

*En la sala de sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 19:00 horas del día 26 de marzo de 2024, se reúne, en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, presidido por el alcalde-presidente Fernando Anbustegi Goñi y con la asistencia de los siguientes concejales: Lorea Lizarreta Insausti, Mariano Iribarren Irigoyen, Jose Luis Retegi Iturbide y Gorka Urtasun Saldias por el grupo EH-BILDU; Florentino Goñi Tellechea, Iñigo Iturralde Eliceche, Joseba Moreno Videgain por el grupo ZUREKIN-CONTIGO BAZTAN; Pello Sarratea Sanzberro y Andoni Irigoyen Maritorena por el grupo BAZTANGO INDEPENDIENTEAK-INDEPENDIENTES DE BAZTAN; Anastasio Nagore Garralda por el grupo UPN; Lander Mattin Santamaria Alcocer, por el grupo GEROA BAI.*

*No asiste: Alaitz Arretxea Etxeberria*

*Actúa como secretario D. Iulen Urbiola Loyarte.*

*El alcalde da comienzo a la sesión.*

***1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ORDINARIA DE 22/02/2024.***
*El acta de la sesión ordinaria de 22/02/2024 es* ***ratificada por unanimidad.***

***2.- EXAMEN Y EN SU CASO APROBACIÓN, DEL PROYECTO DE PRESUPUESTO ORDINARIO PARA EL EJERCICIO 2024.***
*Se ha procedido al examen del presupuesto ordinario y correspondientes bases de ejecución de esta Corporación y de los entes dependientes del mismo, Ikastola Municipal de Baztan y Residencia de Ancianos y Jubilados Francisco Joaquín de Iriarte, así como la previsión de gastos e ingresos de las empresas públicas Giltxaurdi SL, Lixura Baztan SL y Zaintza Lanak Baztan SL, para el ejercicio 2024.*
*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias del mismo, exponiendo los Corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión y que se resumen en:*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/04/17

SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/04/17



**Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** Kontra bozkatuko dute. Ez diete kuadratzen azienda mendian larretzearen diru-sarrerak. Beraiei gehiago ateratzen zaie. Horrela bada, remanentearekin zer egingo den galdetzen du. Bertzalde, ulertzen dute Amaiurren eta Erratzun turismoan inbertitu behar dela, baina kanpotik ikusita ematen du hor egiten direla inbertsio handienak. Belaten gaztelua dago, Red Naturan dago eta ikusita zenbat jende ibiltzen den agian interesgarria izanen zen hor ere turismoan inbertitzea. Venta Quemada udalarena da eta agian zerbait egiten ahal de eraikinean. Heldu den urteari begira aurrekontuak aztertzeko denbora gehiago eta Kontu-hartzaileari galderak egiteko aukera eskatzen dute.

**Joseba Moreno, Zurekin Baztan:** Belatekoari buruz, bere egunean Pello eta Almandozko alkatearekin bildu zen eta Belaten egiteko proposamen pare bat egin ziren. Erantzunaren esperoan dago.

**Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** Aipatzen duena da batez ere Baztangoizan inbertitzen dela. Interesgarria izanen zen bertze leku batzuetan ere inbertitzea Baztangoizako turismoa Baztango bertze zona batzuetara hedatzeko.

**Lander Santamaria, Geroa Bai:** Elektrizitate-gastuak zer irizpideren arabera handitzen edo murrizten diren galdetu du, energiaren prezioa berdina dela uste duenean.

**Kontu-hartzailea:** Gauza bat da hasierako kreditua, baina aurrekontua itxita dagoenez, gauzatzearekin alderatzen da, eta aldeak exekuzioa txikiagoa edo handiagoa izatearen ondorio dira.

**Lander Santamaria, Geroa Bai:** Agian komeniko litzateke datozen ekitaldietarako hiri-kontribuzioa doitzea. % 31,08ko igoera ekarriko du, eta komeni da urtez urte egokitzea.

**Fernando Anbustegi, alkatea:** Ulertzen du ponencia de valoración delakoari buruz ari dela. Horren informazioa eman zen. 2004tik ez da berritu.

**Lander Santamaria, Geroa Bai:** Esan nahi du maizago egin beharko luketela, igoera hain handia izan gabe.

**Fernando Anbustegi, alkatea:** Eragina ahalik eta ttikiena izateko, osoko bilkuran onartu ziren orain dela hilabete batzuk tipo minimoak, igoera ere minimora murrizteko.

***Pello Sarratea, Baztango Independienteak:*** *Votarán en contra. No les cuadran los ingresos del pastoreo del ganado en el monte. A ellos les sale más. Si es así, pregunta qué se va a hacer con el remanente. Por otra parte, entienden que en Amaiur y Erratzu hay que invertir en turismo, pero visto desde fuera parece que ahí es donde se hacen las mayores inversiones. En Belate está el castillo, que está en la Red Natura y viendo la cantidad de gente que pasea, quizás hubiera sido interesante invertir en turismo. Venta Quemada es municipal y quizá se pueda hacer algo en el edificio. Piden más tiempo para analizar los presupuestos de cara al año que viene y la posibilidad de hacer preguntas a Intervención*

.

***Joseba Moreno, Zurekin Baztan****: Sobre Belate, se reunió en su día con Pello y la alcaldesa de Almandoz y se hicieron un par de propuestas para hacer en Belate. Está en espera de la respuesta.*

***Pello Sarratea, Baztango Independienteak****: Lo que mencionaba es que se invierte sobre todo en Baztangoiza. También sería interesante invertir en otros lugares para extender el turismo de Baztangoiza a otras zonas de Baztan.*

***Lander Santamaria, Geroa Bai:*** *Pregunta con qué criterios se aumentan o disminuyen los gastos de electricidad, cuando entiende que el precio de la energía es el mismo.*

***Interventora****: Una cosa es el crédito inicial, pero como ya está el presupuesto cerrado se compara con la ejecución y las diferencias obedecen a que la ejecución ha sido inferior o superior.*

***Lander Santamaria, Geroa Bai****: Quizás convendría ajustar para ejercicios próximos la contribución urbana. Va a suponer un aumento del 31,08%, convendría ajustarlo año a año.*

***Fernando Anbustegi, alcalde****: Entiende que se refiere a la ponencia de valoración. Ya se informó sobre eso. No se ha renovado desde 2004.*

***Lander Santamaria, Geroa Bai:*** *Quiere decir que deberían intentar hacerlo de forma más frecuente, sin que suponga una subida tan fuerte.*

***Fernando Anbustegi, alcalde:*** *Para minimizar el impacto hace unos meses en sesión plenaria se aprobaron los tipos mínimos.*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/04/17

SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/04/17



**Lander Santamaria, Geroa Bai**: Agozpeko zentralaren hornidura elektrikoari buruz galdetzen du.
**Fernando Anbustegi, alkatea:** Hori ere azaldu zen. Aurreikuspena egiten da aitzineko urtearen errealitatea kontuan hartuz. Txostenean azaltzen da.
**Lander Santamaria, Geroa Bai:** Zentral honetan makineria berritu zen azken aldia duela 41 urte izan zela uste du. Gaur egun, zentral horiek askoz gehiago produzitu dezakete ur-emari berarekin. Bailararentzat diru-sarrera interesgarria denez, aztertu egin beharko litzateke.

"Iruritako Dolantxea etxearen expropiación – compra parcela Amaiur para parking" partidari buruzko galdera.
**Kontu-hartzailea:** Aurreikusia dago diru bat espropiazioaren gastuentzat eta memoriarentzat, beharrezkoa bada espropiazioa egitea. Akats bat dago kontzeptuan, ez du deus ikustekorik Amaiurko parkinarekin.

**Lander Santamaria, Geroa Bai:** Basogintzako jarduerei eta abeltzaintzako obra eta azpiegiturei buruzko galdera.
**Jose Luis Retegi, EH-Bildu:** Landaketak, garbiketak, klareoak, zierreak… horiek sartzen dira basogintza jardueretan, nekazaletan berriz Erdizen ura berritzea, ur depositu bat lurperatzea, ura eramateko bi proiektu dira. Joan den urtetik heldu dira aurten exekutatzen ari direnak.

**Lander Santamaria, Geroa Bai:** Lezeta I eta II bideko hormigoituak.
**Fernando Anbustegi, alkatea:** Aurrekontua partidaz partida azaldu zen ogasun batzordean.
**Mariano Iribarren, EH-Bildu:** Napoleonen bide gisa ezagutzen den bidearen bi tarte berritzea da. Pistak bost kilometroko luzera du eta buruz, gutti gorabehera konpondu beharrekoa kilometro eskasa da. Hala ere datuak beharrez gero ez du arazorik proiektua erakusteko. Nahi duelarik hurbiltzen ahal da beregana galdetzera. Agozpeko zentralari buruz eskertuko dio laguntza teknika berriak ezagutzen duen norbaitekin lan egiteko. Aurrekontu bat eskatzen ahal da hurrengo aurrekontuetan aurkezteko. Gauza aunitz egiten ahal dira, baina denbora mugatuta dute.

***Lander Santamaria, Geroa Bai:*** *Pregunta sobre el suministro eléctrico de la central de Agozpe.*
***Fernando Anbustegi, alcalde:*** *También se explicó. Se hace una previsión teniendo en cuenta la realidad del año anterior. Se explica en el informe.*

***Lander Santamaria, Geroa Bai:*** *La última vez que se renovó la maquinaria en esta central cree que fue hace 41 años. En la actualidad estas centrales pueden producir mucho más con el mismo caudal de agua. Como supone un ingreso interesante para el valle, sería cuestión de estudiarlo.*

*Pregunta sobre la partida "expropiación de la casa Dolantxea de Irurita – compra parcela Amaiur para parking".*
***Interventora:*** *Está previsto un dinero para los gastos de la expropiación y los de la memoria, si es necesaria la expropiación. Hay un error en el concepto, no tiene nada que ver con el párking de Amaiur.*

***Lander Santamaria, Geroa Bai:*** *Pregunta sobre las actividades forestales y obras e infraestructuras ganaderas.*
***José Luis Retegi, EH-Bildu:*** *Plantaciones, limpiezas, clareos, cierres... son algunos de los proyectos que se incluyen en las actividades forestales, mientras que en la agricultura se incluye la renovación del agua de Erdiz, el soterramiento de un depósito de agua, dos proyectos para llevar agua. Vienen del año pasado y se están ejecutando este año.*

***Lander Santamaria, Geroa Bai:*** *Hormigonados camino Lezeta I y II.*
***Fernando Anbustegi, alcalde:*** *El presupuesto ya se explicó en la comisión de hacienda partida por partida.*
***Mariano Iribarren, EH-Bildu:*** *Es la renovación de dos tramos del camino conocido como camino de Napoleón. La pista tiene cinco kilómetros de longitud; de memoria, el tramo a renovar es un kilómetro escaso. Sin embargo, si se necesitan datos no tiene problema para mostrar el proyecto. Puede acercarse a donde él cuando quiera. Sobre la central de Agozpe le agradecería la ayuda para trabajar con alguien que conoce las nuevas técnicas. Se puede solicitar un presupuesto para presentarlo a los próximos presupuestos. Se pueden hacer muchas cosas, pero tienen el tiempo limitado.*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/04/17

SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/04/17

**Fernando Anbustegi, alkatea:** Bere bulegoa ere irekita dago eta bertan dago egunero. Prest dago edozein gauzan laguntzeko edo argitzeko.
**Lander Santamaria, Geroa Bai:** Informazioa denei batera ematea eta ideiak trukatzea gustatuko litzaioke. Eta ez luke inoren bulegora joan beharko informazioa eskatzera
**Fernando Anbustegi, alkatea:** Ezin da minutuero kontatu egiten den lan guzia eta ez dakite bakoitzari zer interesatzen zaion. Errazena da jakitea bakoitzak zer nahi duen eta horri erantzutea.

Alkateak bozkatzeko deia egin du eta 2/1995 Foru Legearen 202. artikuluaren arabera, Udalbatzak **hurrengo akordioa onartu** du, aldeko 8 boto eta kontrako 4 boto izan direlarik:

1.- **Hasierako onespena ematea** Baztango Udalaren eta beren mendeko diren Baztango Udal Ikastolaren eta Francisco Joaquin Iriarte Zahar-etxearen aurrekontu arruntari eta dagozkion gauzatze-oinarriei, bai eta Giltxaurdi SM, Lixura Baztan SM eta Zaintza Lanak Baztan SM enpresa publikoen 2024 ekitaldirako sarreren eta gastuen aurreikuspenei ere.
Horien inguruko zehaztapenak horretarako ireki den espedientean daude, honako saio honi dagokion espedientearekin batera artxibaturik.

2.- Aurrekontuari Osoko Bilkurak hasierako onespena eman ondoren, Idazkaritzan jarriko da **jendaurrean** hamabortz egun baliodunеko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-oholean iragarri ondoren, auzotarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izan ditzaten.

3.- Erreklamaziorik izanez gero, Osoko Bilkurak horien eta aurrekontuaren behin betiko onespenaren gaineko akordio zehatza hartuko luke. Erreklamaziorik ez balego, aurrekontuak behin betiko onartutzat emanen dira, jendaurreko epea igaro ondoren.

**3.- 2024 URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA AZTERTU ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTU.**
Aurrekariak azaldurik, arrazoiak eta ondorioak aurkezturik, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia azaldu dute, eta bilkura honi

***Fernando Anbustegi, alcalde:*** *Su despacho también está abierto y está allí todos los días. Está dispuesto a colaborar o a aclarar en cualquier cosa.*
***Lander Santamaria, Geroa Bai:*** *Le gustaría que la información se facilitara a todos juntos y se pudieran intercambiar ideas. Y no tendría que acudir al despacho de nadie a solicitar información.*
***Fernando Anbustegi, alcalde****: No se puede contar al minuto todo el trabajo que se hace y no saben qué le interesa a cada uno. Lo más fácil es saber qué quiere cada uno y responder a eso.*

*El alcalde ha llamado a votar y según lo dispuesto en el artículo 202 de la Ley Foral 2/1995, el Pleno* ***ha adoptado el siguiente acuerdo*** *con 8 votos a favor y 4 votos en contra:*
*1.-* ***Aprobar inicialmente*** *el presupuesto ordinario y correspondientes bases de ejecución de este Ayuntamiento del Noble Valle y Universidad de Baztan y de los entes dependientes del mismo, Ikastola Municipal de Baztan y Residencia de Ancianos y Jubilados Francisco Joaquín de Iriarte, así como la previsión de gastos e ingresos de las empresas públicas Giltxaurdi SL, Lixura Baztan SL y Zaintza Lanak Baztan SL, para el ejercicio 2024.*
*El detalle de los mismos obra en el correspondiente expediente incoado al efecto, que queda archivado junto al de la presente sesión.*
*2.- Aprobado inicialmente el presupuesto por el Pleno,* ***se expondrá*** *en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.*
*3.- Si se formularan reclamaciones, el Pleno adoptará acuerdo expreso relativo a la resolución de aquéllas y a la aprobación definitiva del presupuesto. Si no se hubiesen formulado reclamaciones, el presupuesto se entenderá aprobado definitivamente, una vez transcurrido el período de exposición pública.*

***3.- EXAMEN Y EN SU CASO APROBACIÓN, DE LA PLANTILLA ORGÁNICA PARA EL EJERCICIO 2024.***
*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias del mismo, exponiendo los Corporativos, sobre el punto de referencia, sus*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/04/17

SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/04/17

dagokion soinu fitxategian bildu dira , eta honela laburbiltzen dena:

**Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** Galdetzen du zergatik jaitsi den kirol teknikariaren konplementua.
**Idazkaria:** Zegoen postua amortizatu da, desagertu da eta berri bat sortu baldintza berriekin. Udal honen irizpidea beti izan da B mailako lanpostuek %30eko konplementua izatea.
**Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** Galdetzen du ea pertsona bera sartzen bada lanpostu horretan %30eko konplementuarekin gelditzen den.
**Idazkaria:** Bai.

Alkateak bozkatzeko deia egin du eta 6/1990 Foru Legearen 235. artikuluaren arabera, Udalbatzak **hurrengo akordioa onartu du**, aldeko 8 boto, kontrako 2 boto eta 2 abstentzio izan direlarik:

1.- **Hasiera batean onestea** Baztango Udalaren plantilla organikoa, 2024. urterako, urtarrilaren 1eko ondorio ekonomikoekin. Horren xehetasunak horretarako irekitako espedientean daude eta bilkura honi dagokion espedientean artxibatu dira.

2.- Funtzionarioen, lan-kontratudun finkoen, aldi baterako eta behin-behineko administrazio-kontratadunen izenen zerrendak **onestea**, 2024ko urtarrilaren lehenari dagozkienak.

3.- Plantillari Osoko bilkurak hasierako onespena eman ondoren, Idazkaritzan jarriko da **jendaurrean** hamabortz egun baliodunekoepean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-oholean iragarri ondoren, auzotarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izan ditzaten.

4.- Erreklamaziorik izanez gero, Osoko Bilkurak horien eta Plantillaren behin betiko onespenaren gaineko akordio zehatza hartuko luke. Erreklamaziorik ez balego, Plantilla behin betiko onartutzat emanen da, jendaurreko epea igaro ondoren.

5.- Udaltzainen koordinatzaile postua betetzeko Xabier Huarte Ruiz izendatu da. Musika Eskolako zuzendaria Jeanne Quertier Munarriz izendatzen da, 2023/24ko ikasturtea bukatu arte.

*opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión y que se resumen en:*

***Pello Sarratea, Baztango Independienteak**: Pregunta por qué ha bajado el complemento de la plaza de técnico/a de deportes.*
***Secretario:** Se ha amortizado el puesto existente, ha desaparecido y se ha creado uno nuevo con las nuevas condiciones. El criterio de este Ayuntamiento siempre ha sido que los puestos de nivel B tengan un complemento del 30%.*
***Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** Pregunta si entra la misma persona en ese puesto se queda con un complemento del 30%.*
***Secretario:** Sí.*

*El alcalde ha llamado a votar, según lo dispuesto en el artículo 235 de la Ley Foral 6/1990, y el Pleno **ha adoptado el siguiente acuerdo** con 8 votos a favor, 2 votos en contra y 2 abstenciones:*
*1.- **Aprobar inicialmente** para el año 2024 y con efectos económicos de uno de enero del mismo la Plantilla Orgánica del Ayuntamiento del Noble Valle y Universidad del Baztan, cuyo detalle obra en el expediente incoado al efecto y que queda archivado en el de la presente sesión.*
*2.- **Aprobar** las relaciones nominales de funcionarios, de personal laboral fijo de régimen laboral, de personal temporal en régimen administrativo y eventual, referidas a 1 de enero de 2024.*
*3.- Aprobada inicialmente la Plantilla por el Pleno, **se expondrá** en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.*
*4.- Si se formularan reclamaciones, el Pleno adoptará acuerdo expreso relativo a la resolución de aquéllas y a la aprobación definitiva de la Plantilla. Si no se hubiesen formulado reclamaciones, la Plantilla se entenderá aprobada definitivamente, una vez transcurrido el período de exposición pública.*
*5.- Se designa para ocupar el puesto de coordinador de agentes de policía municipal al funcionario Xabier Huarte Ruiz, y en el puesto de directora de la Escuela de Música a Jeanne Quertier Munarriz hasta la finalización del curso 2023/24.*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/04/17
SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/04/17

**4.- LUZATUTAKO AURREKONTUAREN ALDAKETA. KONTU-HARTZAILEAREN 4. TXOSTENA.**

Kontu-hartzaileak prestatu duen aurrekontu aldaketa azaldu da, saio honetako espedientean dagoena (4. zenbakiduna). Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia eman dute eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildu da. Alkateak bozkatzera deitu du. Aho batez luzatutako aurrekontuen aldaketari **hasierako onespena eman zaio. TIPeko obrak: Amuts eta Xorikainen zolatze-lanak, 195.000,00 €.**

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 214.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, aurrekontua betearazteko oinarriek hala ezartzen dutenean, kreditu horiek emateko Osoko Bilkurak hartutako hasierako erabakia jendaurrean paratuko da Udalaren iragarki oholean, hamabortz egun naturaleko epean, herritarrek edo interesdunek egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak edo alegazioak aurkez ditzaten.

Epe hori iraganik, eta erreklamazio edo alegaziorik egin ez bada, hasierako onespen erabakia behin betikoa dela ulertuko da, eta jendaurrean egoteko epea iragan eta gero sartuko da indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak aurkezten badira, Osoko Bilkurak berariaz erabaki beharko du erreklamazio edo alegazioetan proposatutako aldaketak behin betiko onartzea edo ez. Erabaki hori indarrean sartuko da behin betiko testua toki entitatearen iragarki-oholean argitaratu ondotik.

***4.- MODIFICACIÓN AL PRESUPUESTO PRORROGADO. INFORME DE INTERVENCIÓN Nº 4.***

*Explicado el informe elaborado por la interventora, adjunto al expediente de la presente sesión (nº 4), y una vez expuestos por los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión.*

*El alcalde llama a votar. La modificación al presupuesto prorrogado es **aprobada** por unanimidad con carácter inicial**. Obras PIL: pavimentación Amuts y Xorikain, 195.000,00 €.***

*De conformidad con lo dispuesto en el artículo 214.2 de la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de Haciendas Locales de Navarra, cuando las bases de ejecución del Presupuesto así lo establezcan, el acuerdo inicial adoptado por el Pleno para la concesión de los citados créditos será sometido a exposición pública en el tablón de anuncios de la Corporación por un plazo de quince días naturales con el fin de que los vecinos o interesados puedan presentar las reclamaciones o alegaciones que estimen oportunas. Transcurrido dicho plazo, y si no se hubiesen formulado reclamaciones o alegaciones, el acuerdo de aprobación inicial se entenderá aprobado definitivamente, entrando en vigor una vez transcurrido el período de exposición pública.*

*Si se formularan reclamaciones o alegaciones, el Pleno deberá adoptar acuerdo expreso relativo a la resolución de aquellas y a la aprobación definitiva de la modificación propuesta, que entrará en vigor una vez publicado el texto definitivo en el tablón de anuncios de la entidad local.*

**5.- LUZATUTAKO AURREKONTUAREN ALDAKETA. KONTU-HARTZAILEAREN 5. TXOSTENA.**

Kontu-hartzaileak prestatu duen aurrekontu aldaketa azaldu da, saio honetako espedientean dagoena (5. zenbakiduna). Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia eman dute eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildu da. Alkateak bozkatzera deitu du. Aho batez luzatutako aurrekontuen aldaketari **hasierako onespena eman zaio. Emergentziazko lanak Iruritako Zokoa bidea konpontzeko, 45.000,00 €.**

***5.- MODIFICACIÓN AL PRESUPUESTO PRORROGADO. INFORME DE INTERVENCIÓN Nº 5.***

*Explicado el informe elaborado por la interventora, adjunto al expediente de la presente sesión (nº 5), y una vez expuestos por los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión.*

*El alcalde llama a votar. La modificación al presupuesto prorrogado es **aprobada** por unanimidad con carácter inicial**. Obras emergencia, reparación camino Zokoa de Irurita, 45.000,00 €.***

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/04/17
SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/04/17

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 214.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, aurrekontua betearazteko oinarriek hala ezartzen dutenean, kreditu horiek emateko Osoko Bilkurak hartutako hasierako erabakia jendaurrean paratuko da Udalaren iragarki oholean, hamabortz egun naturaleko epean, herritarrek edo interesdunek egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak edo alegazioak aurkez ditzaten.
Epe hori iraganik, eta erreklamazio edo alegaziorik egin ez bada, hasierako onespen erabakia behin betikoa dela ulertuko da, eta jendaurrean egoteko epea iragan eta gero sartuko da indarrean.
Erreklamazioak edo alegazioak aurkezten badira, Osoko Bilkurak berariaz erabaki beharko du erreklamazio edo alegazioetan proposatutako aldaketak behin betiko onartzea edo ez. Erabaki hori indarrean sartuko da behin betiko testua toki entitatearen iragarki-oholean argitaratu ondotik.

*De conformidad con lo dispuesto en el artículo 214.2 de la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de Haciendas Locales de Navarra, cuando las bases de ejecución del Presupuesto así lo establezcan, el acuerdo inicial adoptado por el Pleno para la concesión de los citados créditos será sometido a exposición pública en el tablón de anuncios de la Corporación por un plazo de quince días naturales con el fin de que los vecinos o interesados puedan presentar las reclamaciones o alegaciones que estimen oportunas. Transcurrido dicho plazo, y si no se hubiesen formulado reclamaciones o alegaciones, el acuerdo de aprobación inicial se entenderá aprobado definitivamente, entrando en vigor una vez transcurrido el período de exposición pública.*
*Si se formularan reclamaciones o alegaciones, el Pleno deberá adoptar acuerdo expreso relativo a la resolución de aquellas y a la aprobación definitiva de la modificación propuesta, que entrará en vigor una vez publicado el texto definitivo en el tablón de anuncios de la entidad local.*

**6.- 9/2024 FORU AGINDUA, OTSAILAREN 1EKOA, LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUNEKO KONTSEILARIAK EMANA, NAFARROAKO KONTZEJUETAKO POPULAZIOAREN ZIFRAK, 2023KO URTARRILAREN 1EKOAK, OFIZIALTZAT JOTZEN DITUENA.**
Idazkariak Ekonomia eta Ogasuneko Kontseilariak emandako 9/2024 Foru Agindua azaltzen du. Horren bidez 2023ko urtarrilaren 1ari dagozkion biztanle kopuruak ofizialtzat ematen dira, Baztango Udalerrikoa 7.831 biztanlekoa izanik.
Udalbatza **jakitun gelditu da.**

***6.- ORDEN FORAL 09/2024, DE 1 DE FEBRERO, DEL CONSEJERO DE PRESIDENCIA E IGUALDAD, POR LA QUE SE DECLARAN OFICIALES LAS CIFRAS DE POBLACIÓN DE LOS CONCEJOS DE NAVARRA CON REFERENCIA AL 1 DE ENERO DE 2023.***
*El secretario da cuenta de la Orden Foral 8/09/2024, de 1 de febrero, del consejero de Presidencia e Igualdad, por la que se declaran oficiales las cifras de población de los concejos de Navarra con referencia al 1 de enero de 2023, siendo la cifra de Baztan de 7.831 habitantes.*
*El Pleno* ***se da por enterado****.*

**7.- SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA ONARTZEA. ELIZONDOKO FRANCISCO JOAQUÍN IRIARTE EGOITZA ERABERRITU, HOBETU ETA EGOKITZEKO OBREN ADMINISTRAZIO-KONTRATUA (I. FASEA).**
"Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte egoitza eraberritzeko, hobetzeko eta egokitzeko (1. fasea" obren administrazio-kontratua gauzatzeari buruzko administrazio-espedientearen izapidetze-egoera aztertu da.

***7.- APROBACIÓN DEL PLAN DE SEGURIDAD Y SALUD. CONTRATO ADMINISTRATIVO DE OBRAS DE REFORMA, MEJORA Y ADAPTACIÓN DE LA RESIDENCIA FRANCISCO JOAQUÍN IRIARTE DE ELIZONDO (FASE I).***
*Visto el estado de tramitación del expediente administrativo relativo a la ejecución del contrato administrativo de obras de "reforma, mejora y adaptación de la Residencia Francisco Joaquín Iriarte de Elizondo (fase 1)".*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/04/17
SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/04/17

2023ko urriaren 17ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez esleitu zitzaion Construcciones José Miguel Ibáñez, SLUri "Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte egoitza eraberritzeko, hobetzeko eta egokitzeko (1. fasea"). Kontratu hori 2023/12/05ean formalizatu zen.

2024/02/16an, egoitza elektroniko bidez, aipatutako obra-kontratu administratiboaren segurtasun- eta osasun-plana aurkeztu zen, eraikuntza-obretarako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 7. artikuluaren arabera. Segurtasun- eta osasun-planaren zehaztapenak bat datoz indarrean dagoen arau-esparruarekin, eta, beraz, bidezkoa da onartzea.

Kontuan hartu da hura onartzeko organo eskuduna kontratazio-organoa dela, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian eta eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 7.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Horregatik guztiagatik, alkateak bozkatzera deitu du, Udalbatzak aho batez honako hau **erabaki du**:

1.- "Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte egoitza eraberritzeko, hobetzeko eta egokitzeko (1. fasea" obren administrazio-kontratuaren segurtasun- eta osasun-plana onartzea, administrazio-espedientean jasotako baldintzetan.

2.- Ebazpena enpresa esleipendunari, kontratuaren arduradunari eta segurtasun- eta osasun-koordinatzaileari jakinaraztea.

*Mediante acuerdo plenario de 17 de octubre de 2023 se adjudicó el contrato de la obra de "reforma, mejora y adaptación de la Residencia Francisco Joaquín Iriarte de Elizondo (fase 1)" a Construcciones José Miguel Ibáñez SLU. Dicho contrato fue formalizado en fecha 5/12/2023.*

*Con fecha 16/02/2024 se presenta por sede electrónica el correspondiente plan de seguridad y salud del citado contrato administrativo de obras, en los términos del artículo 7 del Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, por el que se establecen las disposiciones mínimas de seguridad y de salud en las obras de construcción. Las determinaciones del plan de seguridad y salud son ajustadas al marco normativo vigente, por lo que procede su aprobación.*

*Considerando que el órgano competente para su aprobación es el órgano de contratación, en los términos de la Disposición Adicional Segunda de la Ley 9/2017, de Contratos del Sector Público, y el artículo 7.2 del Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, por el que se establecen las disposiciones mínimas de seguridad y salud en las obras de construcción.*

*Por todo lo expuesto, el alcalde llama a votar, el Pleno por unanimidad **acuerda:***

*1.- Aprobar el plan de seguridad y salud del contrato administrativo de obras de "reforma, mejora y adaptación de la Residencia Francisco Joaquín Iriarte de Elizondo (fase 1)" en los términos obrantes en el expediente administrativo.*

*2.- Notificar la resolución que se dicte a la mercantil adjudicataria, así como al responsable del contrato y al coordinador de seguridad y salud.*

**8.- IRURITAKO UE-3 BIRPARTZELATZEKO PROIEKTUA. HASIERAKO ONESPENA.**

Iruritako 3. egikaritze-unitatearen borondatezko birpartzelazio-proiektua aurkeztu da, hasierako onespenerako. Birpartzelazioaren xedea da Iruritako 3. egikaritze unitatearen eremuan dauden finkak elkartzea, Baztango Udal Planaren aldaketa puntual egituratzailearen bidez hiri-lurzorura gehituta, plangintzara egokitutako zatiketa berri baterako, eta ondoriozko lurzatiak esleitzea lurzoruaren egungo jabeei eta Baztango Udalari beren eskubideen proportzioan emandako hirigintza-hitzarmenean oinarrituta.

***8.- PROYECTO DE REPARCELACIÓN DE LA UE-3 DE IRURITA. APROBACIÓN INICIAL.***

*Se presenta para su aprobación inicial el proyecto de reparcelación voluntaria de la unidad de ejecución 3 de Irurita. El objeto de la reparcelación es la agrupación de las fincas comprendidas en el ámbito de la unidad de ejecución 3 de Irurita, incorporado al suelo urbano por medio de la modificación puntual estructurante al Plan Municipal del Valle de Baztan, para su nueva división ajustada al planeamiento, con adjudicación de las parcelas resultantes, en base al convenio urbanístico suscrito con los actuales propietarios del suelo aportado, en proporción a sus respectivos derechos y al Ayuntamiento de Baztan.*

Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua kontuan hartuta, Udalbatzak aho batez **erabaki du:**

1.- Hasiera batean onestea Iruritako 3. egikaritze-unitatearen borondatezko birpartzelazioa. Hori guztia, bat etorriz uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. eta 152. artikuluetan xedatuarekin (legegintzako foru dekretu horren bidez onetsi zen Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina).

2.- Espedientea jendaurrean egonen da 20 eguneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, eta interesdunen eskura udal bulegoetan egonen da, egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten, bat etorriz uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. eta 152. artikuluetan xedatuarekin (legegintzako foru dekretu horren bidez onetsi zen Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina).

3.- Akordio hau interesatuei helaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

*Teniendo en cuenta el Decreto Foral Legislativo 1/2017, de Ordenación del Territorio y Urbanismo, el Pleno por unanimidad* ***acuerda:***

*1.- Aprobar inicialmente la reparcelación voluntaria de la unidad de ejecución 3 de Irurita. Todo ello de conformidad con lo dispuesto en los artículos 74 y 152 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo.*

*2.- De conformidad con lo dispuesto en los artículos 74 y 152 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, se somete el expediente a información pública durante el plazo de 20 días a partir de la publicación del presente anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, durante el cual, dicho expediente se encontrará a disposición de los interesados en las oficinas municipales a fin de que puedan formular las alegaciones que estimen oportunas..*

*3.- Notificar el presente acuerdo a los interesados, para su conocimiento y efectos.*

**GALDE-ESKEAK**

**Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** Galdetzen du ea nola gelditzen den Oronozko lanbide eskola, lizitazioa hutsa gelditu ondoren.

Bertzalde galdetzen du ea badagoen asmoa Erratzu eta Amaiurko parkinetan tasa kobratzeko.

**Fernando Anbustegi, alkatea:** Oronozkoari buruz, ostiralean deitu zuen Jimeno kontseilariaren gabinete-buruak Baztango eta Berako alkateei erranez hutsik gelditu dela esleipena eta urgentziazko bilera batera deitzeko. Atzo bildu ziren eta aipatu zietenez bost enpresa interesatu ziren, bainan bakarrak ere ez zuen eskaintzarik aurkeztu. Aditu dute ez direla aurkeztu prezioak ez zirelakoz egokiak, bainan atzoko bilkuran ez zuten horrela ikusten. Orain arkitektuei emanen zaie berriz proiektua aztertzeko eta ikusteko non dagoen akatsa. Ondotik berriz ere egin beharko da lizitazioa.

**Joseba Moreno, Zurekin Baztan:** Parkinetan kobratzeko asmoa dago, baina horretarako ordenantza aztertu behar da eta horretan ari dira, baina ezin dira hasi obrak egin arte.

***RUEGOS Y PREGUNTAS***

***Pello Sarratea, Baztango Independienteak****: Pregunta en qué situación se queda la escuela profesional de Oronoz, después de que la licitación haya quedado vacía.*

*Por otra parte, pregunta si hay intención de cobrar la tasa en los parkings de Erratzu y Amaiur.*

***Fernando Anbustegi, alcalde****: Sobre lo de Oronoz, el viernes el jefe de gabinete del consejero Jimeno convocó a los alcaldes de Baztan y Bera, diciendo que la adjudicación había quedado desierta y convocándoles a una reunión urgente. Ayer se reunieron y les comentaron que se habían interesado cinco empresas, pero ninguna presentó oferta. Han oído que no se han presentado porque los precios no eran adecuados, pero en la sesión de ayer no lo veían así. Ahora se volverá a dar a los arquitectos/as para que estudien el proyecto y vean dónde está el error, y a continuación se volverá a licitar.*

***Joseba Moreno, Zurekin Baztan****: Hay intención de cobrar en los parkings, pero para ello hay que analizar la ordenanza y están en ello, pero no pueden empezar hasta que se hagan las obras.*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/04/17

SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/04/17

**Andoni Irigoyen, Baztango Independienteak:** Hiltegiari buruz galdetu zuen bere egunean, nongo azienda ekartzen zuten. Ez du erantzunik.
**Jose Luis Retegi, EH-Bildu:** Joan den urteko datu zehatzak ez daude prest. Horretan dabiltza. Aurtengoak hilabetero aurkezten dituzte eta astia dutelarik prestatzen dituzte joan den urtekoak. Esperoan daude.

***Andoni Irigoyen, Baztango Independienteak****: En su día preguntó por el matadero, de donde traían el ganado. No tiene respuesta.*
***José Luis Retegi, EH-Bildu:*** *Los datos concretos del año pasado no están preparados. Están en ello. Los de este año los están presentando mensualmente y cuando tienen tiempo preparan los del año pasado. Están esperando.*

**Andoni Irigoyen, Baztango Independienteak:** Aipatu zuen udalak Nafarroako Gobernuari datuak eskatuta berehala ematen dituztela. Horretan gelditu ziren aurreko batzarrean, baina ez da egin. Ez du ulertzen zergatik ez diren eskatzen.
**Jose Luis Retegi, EH-Bildu:** Nafarroako Gobernuari ez diote eskatu. Galdetuko dute.

***Andoni Irigoyen, Baztango Independienteak****: Comentó que si el ayuntamiento pide datos al Gobierno de Navarra enseguida los da. En eso quedaron en el anterior pleno, pero no se ha hecho. No entiende por qué no se piden.*
***José Luis Retegi, EH-Bildu****: No se los han pedido al Gobierno de Navarra, preguntarán.*

Jarraian, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 19:43an. Idazkari gisa, horren guztiaren fede ematen dut.

*Seguidamente, por el Sr. alcalde se levanta la sesión, siendo las 19:43 horas, de todo lo cual, como secretario doy fe.*

ALKATEA
*EL ALCALDE*

IDAZKARIA
*EL SECRETARIO*